

EUDEL
ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS
SALIDA / IRTEERA

DATA 25 JUN. 2012 FECHA

Nº Zbkia. 222



Bilbon, 2012ko ekainaren 25ean

Alkate jn./and.:

2012ko martxoaren 6an, udal guztiei igorri zitzairen EUDELen Batzorde Eragilearen erabakia; horren arabera, aurrekontuen eta ekonomiaren kudeaketan zuhurtzia eta erantzukizun irizpideak erabiltzea gomendatzen zen, eta, xede horretarako, 2011ko Foru Funtsen likidaziotik eratorritako kopuruak erabiltzea aholkatu zen, eta ez 2012ko aurrekontuetan ezarritako kopuruak. Era berean, jakinarazi zen Elkarte honek konpromisoa hartu zuela udal arduradunei informazio garrantzitsua helarazteko, esparru horretan erabakiak hartzeari begira.

Konpromiso hori betetzeko, Batzorde Eragileak, 2012ko ekainaren 21ean, egokitzen jo du EUDELek duen eta ondoren azaltzen den diru-bilketarako informazioa igortzea.

Zerga-bilketari buruzko datuak, 2012ko maiatzera arte (berau barne).

Ondorengo datuotan barne hartzen dira 2011ko laugarren hiruhilekoaren BEZ doikuntzari buruzko kupoaren lehen epearen ordainketan kendutako kopuruak, eta, horien arabera, murrizketa antzematen da, 2011ko epe bereko zerga-bilketarekin alderatuta.

LURRALDEA	2011ko zerga-bilketa (Urtarrila-Maiatza)	2011ko zerga-bilketa (Urtarrila-Maiatza)	2012/2011 % (Urtarrila-Maiatza)
BIZKAIA	2.370.076.857,00	2.313.231.265,00	%-2,40
ARABA	617.330.430,00	559.780.993,00	%-9,32
GIPUZKOA	1.202.354.812,00	1.131.557.584,00	%-5,89
GUZTIRA	4.189.762.099,00	4.004.569.842,00	%-4,42

Beherakada horren ondorioz, hitzartutako zerga hauen partaidetzatik eratorritako udal finantziazioak ere behera egingo du.

Gaur-gaurkoz, nekez neurtu dezakegu zehatz-mehatz udal finantziazioan izango duen eragina urtearen amaieran. Hori horrela, esate baterako, ekaina bukatu arte ez dira ezagutuko PFEZen eta Ondarearen gaineko Zergan egindako aldaketek zerga-bilketan izango dituzten ondorioak. Edonola ere, kontuan hartu behar dugu zerga-bilketaren beherakada aurreko urteko bilketaren aldean soilik dela halaxe -hau da, **likidazioaren** aldean-, eta ez aurrekontuaren aurreikuspenei dagokienez; izan ere, 2012rako, oro har, 2011ko likidazioa baino handiagoa izan zen, %5,5 handiagoa, hain zuzen ere. Horrenbestez, esku artean dauzkagun datuen arabera, gerta daiteke **udalek 2012an kontura jasoko dutenaren parte bat berriro ere itzuli beharra izatea.**

Aurreikuspen horren aurrean, Batzorde Eragileak **berretsi egin du aurreko gomendioa**, xedea delarik udalek Foru Funtsen 2011ko likidaziotik eratorritako kopuruak aurrekontuen eta ekonomiaren kudeaketan erabili ditzatela. Gomendatzen da, era berean, iragandako denbora eta etorkizunean egin beharreko zerga-bilketaren bilakaera gorabehera, eusteko edo doitzeko neurriak **berehala** har daitezela.

Begirunez,



Iz: Ibone Bengoetxea
Elkarteburua

EUDEL
ASOCIACION DE MUNICIPIOS VASCOS
SALIDA / IRTEERA

DATA 25 JUN. 2012 FECHA

Nº Zbkia. 222



Bilbao, a 25 de junio de 2012

Sr./Sra. Alcalde/sa:

El pasado 6 de marzo de 2012, se remitió a todos los ayuntamientos el acuerdo de la Comisión Ejecutiva de EUDEL por el que se recomendó la utilización de criterios de prudencia y responsabilidad en la gestión económico-presupuestaria y, a tales efectos, se aconsejó la utilización de las cifras derivadas de la liquidación de los Fondos Forales de 2011 y no las cantidades fijadas en los presupuestos de los mismos de 2012. Asimismo, se trasladó el compromiso de esta Asociación de facilitar información relevante a los responsables municipales para la toma de decisiones en esta materia.

En cumplimiento de este compromiso, la Comisión Ejecutiva, en reunión de 21 de junio de 2012, ha considerado conveniente remitir la información de recaudación de la que se dispone y que se explicita a continuación.

Datos de recaudación hasta mayo (inclusive) de 2012.

En los siguientes datos se incluyen las cantidades descontadas en el pago del primer plazo de cupo relativas al ajuste IVA del cuarto trimestre de 2011, y que reflejan asimismo una disminución en relación con la recaudación del mismo periodo de 2011.

TERRITORIO	RECAUDACION 2011 (Enero-Mayo)	RECAUDACION 2012 (Enero-Mayo)	% 2012-2011 (Enero-Mayo)
BIZKAIA	2.370.076.857,00	2.313.231.265,00	-2,40%
ARABA	617.330.430,00	559.780.993,00	-9,32%
GIPUZKOA	1.202.354.812,00	1.131.557.584,00	-5,89%
TOTAL	4.189.762.099,00	4.004.569.842,00	-4,42%

Esta disminución tendrá como consecuencia directa que la financiación municipal derivada de su participación en estos tributos concertados disminuirá también.

A fecha de hoy, es muy difícil cuantificar de manera exacta el impacto que tendrá esa disminución en la financiación municipal al cierre del ejercicio. Así, por ejemplo, hasta que finalice junio no se conocerán los efectos recaudatorios de las modificaciones en el IRPF y Patrimonio. En todo caso, hemos de tener en cuenta que la bajada de recaudación lo es en relación con la recaudación anterior –es decir, **la liquidación** – no en relación con la previsión presupuestaria, que para 2012 fue, en términos globales, superior a la liquidación de 2011 en un 5,5%. Por tanto, con los datos de que disponemos **prevemos que los ayuntamientos puedan verse obligados a devolver nuevamente parte de lo que van a recibir a cuenta en el año 2012.**

Ante esta previsión, la Comisión Ejecutiva **se reafirma en la recomendación anterior** dirigida a los ayuntamientos de que utilicen en su gestión económico-presupuestaria las cifras resultantes de la liquidación de 2011 de los Fondos Forales y aconseja que, dado el tiempo transcurrido y la previsible evolución futura de la recaudación, se adopten **de manera inmediata** medidas efectivas de contención o ajuste.

Atentamente,



Fdo. Ibone Bengoetxea
Presidenta